



VI. San Juan Jaiak argazki lehiaketa

Oinarriak

Gaia

Argazkien gaia Arrasate San Juanetan izango da. Egoera berezi honek eraginda ekitaldi asko bertan behera gelditu direnez edo aforo mugatua dutenez, jaietatik kanpo baina Arrasaten ateratako argazkiak ere onartuko dira, beti ere 2021eko San Juan jaietan egindakoak badira.

Izen ematea

Izen ematea dohakoia izango da eta nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan. Artgazki elkarteak bazkide eta zuzendaritzako kideak ere aurkeztu ahal izango dira, betiere epaimahaiko kide ez badira.

Argazkiak aurkezteko epea ekainak 27an amaituko da 22:00etan

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bi argazki aurkeztu daitezke eta lehiaketak@artgazki.org helbidera bidali beharko dira.

Argazkiekin batera datu hauek bidaliko dira: izen-abizenak, helbide elektronikoa, telefonoa eta argazki bakoitzaren izenburua.

Argazkien ezaugarriak

Zuri-beltzean zein koloretan egindako argazkiak aurkeztu daitezke.

Espresuki debekatuta daude argazki muntaia bidez sortutako argazkiak, eta baztertuta geldituko dira epaimahaiaren ustez manipulatuak izan diren argazkiak. Zehazkiago esanda: argazkiei ezin zaie zati bat erantsi, kendu edo tokiz aldatu.

Parte-hartzaileak bermatu beharko du lehiaketara aurkeztzen dituen argazkiak bereak direla.

Argazkiak aukeratzea eta epaia ematea

Epaimahaiak ahalmen osoa dauka oinarri hauekin bat ez datozen argazkiak baztertzeko; baita ere bere iritziz gustu txarrekoak edo iraingarriak izan daitezkeen lanak lehiaketatik kanpo uzteko eta ez argitaratzeko.

San Juan jaiak amaitu eta hurrengo astean aukeratuko ditu epaimahaiak lehiaketako irabazleak. Argazkigintza eta arte alorretako adituek osatuko du epaimahaia.

Sari banaketa uztailak 4, igandea, izango da, 19:00etan Arrasateko Kajoi tabernan.

Argazkien eskubideak

Artgazki elkarteak, lehiaketaren antolatzaile den aldetik, bermatzen du egileen datuak modu egokian erabiliko dituela, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera (Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa, LOPD).

Antolatzaileek argazkiak erreproduzitzeko eskubidea izango dute, informazioa zabaldu edo jardueraren bat sustatze aldera, baita lehiaketa honetan parte hartutako argazkiak erakusteko ere, betiere egilearen izena aipatuta. Era berean, antolatzaileek Arrasateko Udalari eman ahalko dizkiote lehiaketa honetara aurkeztutako argazkiak. Arrasateko Udalak, berriz, ezin izango dizkio beste inori eman argazkiok egilearen baimenik gabe.

Sariak

Argazki onenak:

1. saria: 300 € eta garaikurra.
2. saria: 150 € eta garaikurra.
3. saria: 100 € eta garaikurra.

Argazki originalena: 100 € eta garaikurra.

Parte-hartzaileen artean bi lagunentzako afaria zozketatuko da.